

KULTURA SAILA**329**

AGINDUA, 2007ko abenduaren 13koa, Kultura sailburuarena, Zalduondoko Udaletxea (Araba), Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16. artikulua eta Estatutuaren 10.19. artikulua babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2007ko urriaren 9ko Ebazpenaren bidez Zalduondoko Udaletxeak aurkeztu zuen balio kulturala eta indarrean dauden legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2007ko azaroaren 6ko EHAA (213. zenbakia) agitaratu zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3. artikuluetan eta artikulua horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lebenengoa.— Zalduondoko Udaletxea (Araba), Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko.

Bigarrena.— Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formal egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

DEPARTAMENTO DE CULTURA**329**

ORDEN de 13 de diciembre de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe al Ayuntamiento de Zalduondo (Álava) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del Ayuntamiento de Zalduondo (Álava), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 9 de octubre de 2007, publicada en BOPV n.º 213, de 6 de noviembre, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se han presentado alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.— Inscribir el Ayuntamiento de Zalduondo (Álava), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.— Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

Hirugarrena.— Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari Agindu honen berri ematea.

Laugarrena.— Zalduondoko Udalari bere hirigintza-araudia ondasun arkeologiko horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

Bosgarrena.— Espedienteko interesdunei, Zalduondoko Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza eta Ingurumen Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari Agindu hau jakinaraztea.

Seigarrena.— Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Inskribatzeko den Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango du ondorioak.

Bigarrena.— Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaiekete Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, Agindu hau argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 13a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

a) Mugaketa-eremua.

Mugaketak eraikina bera eta haren inguru hurbilena hartzen ditu.

Beraz, ondorengo muga hauek dira mugaketa-eremua zehazten dutenak: ekialdean, fatxada nagusiaren aurrealdean, fatxada horretatik bertatik 30 metrora lerro paraleloa, Zalduondo eta Agurain lotzen dituen errepideraino; mendebaldean, higiezinaren ondoko atzealdeko bidea; eta gainerako norabideetan eta fatxadetan, eraikina osatzen duten harresiak berak.

Tercero.— Comunicar la resolución al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarto.— Instar al Ayuntamiento de Zalduondo para que proceda a la protección de dicha zona arqueológica contemplándola en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Quinto.— Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Zalduondo, a los Departamentos de Cultura y Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Sexto.— Publicar la presente Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Álava.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.— Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de diciembre de 2007.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

a) Ámbito de la delimitación.

La delimitación incluye por un lado el propio edificio en sí y por otro el entorno más inmediato.

Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al este y frontal a la fachada principal por una línea paralela a la fachada en 30 metros hasta el vial que une Zalduondo con Salvatierra/Agurain, al oeste por el vial trasero junto al inmueble y en el resto de orientaciones y fachadas por el propio muro que conforma el edificio.

b) Mugaketaren arrazoiak.


Proposatu dugun mugaketaren justifikazioa Zalduondoko Udaletxeko ingurumen- eta estetika- eta ikuste-balioak babestu beharra da, baita espazioak berreskuratzea eta horiei balioa ematea ere. Ingurunea mugatzea beharrezkoa da, ondasuna behar bezala babesteko eta horri balioa emateko. Beraz, mugaketa horren bidez, ondoan dituen espazioak babestuko dira, eta alboko eraikuntzek eta udaletxearen parean eraikitzeko dagoen espazio libreak zehazten dute.

Mugaketak, hortaz, udaletxearen eraikina bera eta haren aurrealdeko espazio libre publikoa hartzen ditu.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales, estéticos y visuales del ayuntamiento de Zalduondo y posibilitar espacios para su puesta en valor. La delimitación que resulta necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien, implica la protección de los espacios adyacentes y está condicionada por las edificaciones laterales y el espacio libre de edificación que hay en la parte frontal del ayuntamiento.

Por ello, esta delimitación incluye la edificación del ayuntamiento propiamente dicha, y también el espacio libre frontal público.



ESKALA / ESCALA

10 0 10 20 Meters



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Plano / Plano:
Ayuntamiento de Zaldondo.
Delimitación.
Zalduondoko Udaletxea.
Mugaketa.

Lurraldea / Territorio: **ARABA-ALAVA**

Data / Fecha: 2007/09/26

Udalerría / Municipio: **ZALDUONDO**

Eskala / Escala: 1:1000

II. ERANSKINA

DESKRIPZIOA

Eraikin zibila eta zerbitzuetarako da, soila eta apaindura urrikoa. Eraikina oinplano angeluzuzenekoa da, fatxada nagusia albokoak baino txikiagoa da eta sakonera handiko bolumena osatzen dute; zeramikazko teila arabiarrez egindako bi isurkiko estalkia du eta ertzak harlanduzkoak. Gailurra fatxada nagusiarekin paralelo dago. Behe solairua, lehen solairua eta teilatupeko solairua ditu.

Fatxada nagusia ekialdera begira du, espazio publiko batera eta Zaldondo eta Agurain lotzen dituen errepidera ematen du; azken horretatik, Done Jakue bidea pasatzen denez, oso nabarmen geratzen da. Fatxada laua da, simetrikoa eta ardatz zentralekoa; ia erabat hareharritzko harlanduz egina. Elementuak antolatzeke modua oso ordenatua da: baoak hiru ardatz bertikaletan eta solairuak hierarkikoki jarriak. Behe solairuko elementu esanguratsuen ate nagusia da, handia eta dinteldua, orejetak inguratuta osatuta, lauak jarrita. Solairu horretan bertan, sarbidearen bi aldeetan leiho dinteldu baina irekitzen dira, orejeta eta guzti, pixka bat bertikalean eta burdin landuaz itxita. Solairu horretan bertan, sarbidearen ezkerrean, bada beste bao bat ere, baina ez da jatorrizkoa. Behe solairuaren eta lehen solairuaren arteko banaketa eta forjatu-lerroa zehazten duela, inposta horizontal laua eta jarraitua dago, eta hormataletik pixka bat irtena geratzen da. Lehen solairuan, hiru bao dinteldu daude, behe solairuko antzeko fakturakoak; hirurak oso antzekoak dira, eta hiruretan ez balkoirik, ez burdina-lanik. Solairu horretan bertan, duela gutxi jarritako armari bat dago. Lehen solairuaren eta teilatupearen artean, berriz ere inposta lau horizontal bat ageri da, solairuaren arteko lerroa markatzen duena. Teilatupeak oso altuera txikia du, hiru bao txiki ditu, etzanak, eta harlandu-ilararen parean eta ardatz bertikalaren parean geratzen dira.

Alboko fatxaden ezaugarria da bigarren mailakoak direla, harlangaitzezkoak baitira, entokatuak; ez dute inpostarik, ezta aparteko dekorazio-elementurik ere; gainera, ez dira hainbeste ikusten, bi aldeetan eraikinak baitituzte. Bao oso gutxi dituzte, eta horiek txikiak; fatxadak ia erabatitsuak dira. Baoak dintelduak dira eta harlandua erabiltzen da horien inguruan jartzeko; erregulartasuna nabaria da, antolatzeke moduari dagokionez.

Atzealdeko fatxadak, eskuinaldeko ertzean, sarrera dinteldua du. Behe solairuan gutxi landutako harlandu txikiak ageri dira eta faktura desberdineko hiru bao ditu, lehen aipatutako sarbidearen ezkerrean. Goiko solairuak entokatuta daude, eta lauki formako hiru bao txiki, horizontalean jarriak, nabarmentzen dira; horietako bakoitza harlanduzko lau pieza handiz inguratuta daude. Solairu horretan, bao bertikal bat dago, eta, badirudi, ez dagokiola jatorrizko eraikuntzari.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

Se trata de un edificio civil y de servicios, sobrio y con escasos ornamentos. El edificio tiene planta rectangular con fachada principal de menor dimensión que las laterales, formando un volumen de gran fondo con cubierta a dos aguas de teja cerámica curva y esquinales en sillería. La cumbre se dispone paralela a la fachada principal. Presenta planta baja, primera y bajocubierta.

La fachada principal se alza en orientación este, hacia un espacio público y el vial que une Zaldondo con Salvatierra/Agurain por el que discurre el Camino de Santiago, por lo que su presencia visual es destacada. Es una fachada plana, simétrica y de eje central, realizada en gran parte con sillares de piedra arenisca. Presenta una ordenada composición con tres ejes verticales de vanos y una jerarquización de pisos. La planta baja se caracteriza por un portón central adintelado formado por recercos planos de orejetas. En el mismo piso, a cada lado del acceso se abren sendas ventanas adinteladas, con orejetas, levemente verticales y con cierre de herrería. En esta planta, a la izquierda del acceso se ubica un vano no original. Como división y marcando la línea de forjado entre la planta baja y primera se sitúa una imposta horizontal plana continua levemente saliente del paño de fachada. En la planta primera se disponen tres huecos adintelados de factura similar a los de la planta inferior, ambos tres son similares sin balcón ni herrería. En este piso se ubica un escudo de armas colocado en tiempos recientes. Entre el primer piso y la bajocubierta se repite la imposta plana horizontal que marca la división de pisos. La bajocubierta tiene muy poca altura y presenta tres pequeños vanos apaisados coincidentes con la altura de una hilada de sillares y continuidad con los ejes verticales.

Las fachadas laterales se caracterizan por su carácter secundario al ser realizadas en mampostería revocada, no tener impostas, ni decoración significativa y tener menor presencia urbana al tener edificaciones a ambos lados. Tienen pocos vanos y de pequeño tamaño, predominando un claro carácter ciego de las fachadas. Los vanos se realizan adintelados y se emplea en su cerco sillares, apreciándose una cierta regularidad en su disposición.

La fachada trasera presenta un acceso adintelado en su esquina derecha. La planta baja se muestra con sillarejo y consta de tres vanos de factura diversa a la izquierda del acceso mencionado. Las plantas altas se encuentran revocadas, destacando la alineación horizontal de tres vanos cuadrados de pequeño tamaño recercados cada uno por cuatro piezas de grandes sillares. En este piso se ubica un vano vertical que no parece responder a la construcción original.

Egitura-sistemari dagokionez, egurrezko forjak ditu, eta hiru karga-horma fatxada nagusiarekin paralelo daude. Harresi batek higiezin bi zatitan banatzen du; harresi hori fatxada nagusiarekin paralelo dago, gailur-lerroarekin bat egiten duela. Aurrealdeak, halaber, beste barne-harresi paralelo bat du, eta ageriko zurez forjatuta dago, eta behe solairuko sarbiderako ezkaratza nagusi txikiagatik bereizten da; sarbide horrek harresien arteko eskailerara ematen du, goiko solairura joateko. Baoak harlanduz inguratuta daude. Atzealdean ez dago barne-harresirik, bao baten bidez lotzen da aurrealdearekin; zurezko egitura du ezaugarri.

330

EBAZPENA, 2007ko abenduaren 18koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, euskaraz argitaraturiko liburuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen Kultura sailburuaren 2007ko uztailearen 24ko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbateko orokorra aldatzen duena.

AURREKARIAK

1.– Kultura sailburuaren 2007ko uztailearen 24ko Aginduak euskaraz argitaraturiko liburuetarako diru-laguntzen deialdia egin zuen eta bere 2. artikuluan diru-laguntza horien zenbateko orokorra bostehun eta hamalau mila (514.000,00) eurotan finkatu zuen.

2.– Halaber, Agindu horren xedapen gehigarrian honako hau aurreikusten zen:

«2. artikuluan ezartzen den osoko diru-zenbatekoa aldatu ahal izango da, jasotzen den eskabide kopurua kontuan hartuta eta Kultura Sailaren beste programa batzuetan agortu gabeko aurrekontu diru-atalen erabilgarritasunaren arabera, eta betiere beraien ebazpenaren aurretik. Hau horrela egiten bada, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpenaren bidez jakinaraziko da.»

3.– 2007ko azaroaren 30ean deitutako diru-laguntzen eskabide-epea itxi zen eta jasotako eskabideen erregistro eta koantifikazioaren prozedura hasi zen. Epe horretan zehar ikusi da jasotako eskabide eta diru-laguntza kopuruagatik komenigarria izango litzatekeela zegoen diru-kopurua gehitzea.

4.– Une honetan aurrekontu-disponibilitatea dago,

Ondorioz, hauxe

El sistema estructural es de forjados de madera, con tres muros de carga paralelos a la fachada principal. El inmueble está dividido en dos partes por un muro paralelo a la fachada principal coincidente con la línea de cumbreira. La parte delantera cuenta a su vez con otro muro interno paralelo y forjados de madera vistos, se caracteriza por el pequeño zaguán central de acceso en planta baja desde el que se accede frontalmente a la escalera entre muros que sirve al piso superior. En los cercos de vanos se emplean sillares. La parte trasera no cuenta con muros internos, se comunica mediante un vano con la parte delantera y se caracteriza por su estructura leñosa.

330

RESOLUCIÓN de 18 de diciembre de 2007, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se modifica el importe global máximo destinado en la Orden de 24 de julio de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de ayudas a la producción editorial en euskera.

ANTECEDENTES

1.– La Orden de 24 de julio de 2007, de la Consejera de Cultura, realizaba para 2007 la convocatoria de ayudas para la producción editorial en euskera, y en su artículo 2 fijaba el importe global de dichas ayudas en la cantidad de quinientos catorce mil (514.000,00) euros.

2.– Asimismo, en la Disposición Adicional de la misma Orden se preveía lo siguiente:

«El importe global consignado en el artículo 2 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.»

3.– Con fecha 30 de noviembre de 2007 quedó cerrado el plazo de presentación de solicitudes para acceder a las ayudas convocadas y comenzó el proceso de registro y cuantificación de las solicitudes presentadas. A lo largo de este periodo se ha constatado que el número de solicitudes y las cantidades correspondientes, haría aconsejable un incremento de la cantidad destinada.

4.– Dado que existe en este momento disponibilidad presupuestaria,

Por todo ello,